



izenpe s.a.
ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA

Izenperen egiaztagiri elektronikoa eskuratzea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Alava, S.A.



IZFE, S.A.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Lantek A.B. Lantek S.A.



Eusko Jaurlaritzaren Informatiko Elkartea
Sociedad Informática del Gobierno Vasco


www.izenpe.com

01



Egiaztagiri elektronikoa eskaintzen duen enpresa da Izenpe. Euskal Administrazio publikoetako informatika elkarteek sortu dute (CCASA, EJIE, IZFE eta LANTIK izenekoek, alegia).

Hainbat Administrazioekin on line egiten diren eragiketen egiazkotasuna bermatzea du helburu nagusi, eta horretarako, egiaztagiri elektronikoak emateko ardura dauka.



tel. 902 542 542

www.izenpe.com





Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua

Izenpe Egiaztagiriaren erabilgarritasuna, moduelektronikoan eskaintza egiteko ezinbesteko baldintza.

Eskaintzaren zenbatekoaren arabera, eskaintza egiten duen pertsonak hori sinatzeko adina ahalmen izan behar du. Gainera, Izenpek ematen duen Egiaztagiri elektronikoa eduki beharko du. Hauetakoaren bat, hain zuzen:

Herritarraren Egiaztagiria.

Erakundearen Egiaztagiria.

Egiaztagiri horrekin aritzeko, Web nabigatzailearen programa bat eta IZENPE SAREN sinadura ezagutzen duen softwarea eduki beharko ditu ordenagailuak. Software hori egiaztagiria eskuratzean IZENPEk berak ematen duen CDan dago, eta CDA instalatze hutsarekin automatikoki kargatuko da.

Izenpe Egiaztagiriak eskuratzeko prozedura.

1. Eskatzaileak egiaztagiria eskatzeko inprimakia bete beharko du. Honako helbide honetan aurkituko du, hain zuzen, aipatutako inprimakia: <http://www.izenpe.com>.
2. Aldez aurretik hitzordua eskatu behar da erregistroarako (902 542 542 telefono zenbakira deituta). Eusko Jaurlaritzaren egoitzan edo bere zeinahi ordezkarietan egin ahal izango da erregistroa. Ondokoa da guztietarako ordutegia: 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.
3. Nortasuna egiaztatzea.

Egiaztagiria eskuratzeko baldintzak.

Eskatzaileak, hau da, egiaztagiria izenpetuko duenak, honako agiri hauen originala edo kopia aurkeztu beharko ditu:

o Herritar nazionala izanez gero: NANA.

o Atzerriko herritarra izanez gero:

- Europako Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estatuetako herritarra: AIZa eta indarrean dagoen nortasun agiri bat, nortasuna egiaztatu ahal izateko.
- Komunitatez kanpoko herritarrei dagokienez: egoitza txartela.
- Identifikaziorako Erakunde Publikoak eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko akta irekiko du. Eskatzaileak 16 urte baino gehiago izan behar ditu derrigor.
- Eskatzailea Identifikaziorako Erakunde Publikoan agertzetik salbuetsita geratuko da, baldin eta egiaztagiriaren eskarian egindako sinadura Notario aurrean legezkatzat jo bada.

Egiaztagiria igortzea.

Erregistro Erakundearen eskatzailearen nortasuna egiaztatu ostean, eskatzaileak egiazttagiria igor diezaioten egindako eskaria sinatu beharko du, eta, hartara, izenpetzaile kontratua onartuko du.

Egiaztagiria ematea.

Erregistro Erakundeak egiazttagiria emango dio eskatzaileari

- Egiazttagiria igortzearekin batera, PINa eta PINa desblokeatzeko kodea (PUK) emango zaizkio eskatzaileari; baita telefono identifikaziorako pasahitza adierazten duen orria ere. Egiazttagiria erabiltzeko baldintzen berri emango zaio eskatzaileari, eta, une horretan, eskatzaileak berak Egiazttagiria Eman dela eta Onartu dela adierazten duen Orria sinatu beharko du.



Egiazttagiriak etetea.

Izenpetzaileak zeinahi unetan eska dezake egiazttagiria eten diezaiotela, eta, ezinbestean egin beharko du eskaera egiazttagiria galtzen badu edo lapurtu egiten badiote. Horretarako, **902 542 542** telefono zenbakira deitu, eta bere burua identifikatu beharko du, ondokoen bitartez:

- Telefono Identifikaziorako pasahitza.
- NANA, herritar nazionala izanez gero; AIza, Europako Batasuneko herrialde kide bateko herritarra edo Europako Esparru Ekonomikoko herrialderen bateko herritarra izanez gero; edo, Egoitza Txartela, komunitatez kanpoko atzerritarra bada.
- Jaiotza data.

Egiazttagiria etenda izateko gehienezko epea hamabost egun naturalekoa izango da, egiazttagiriaren izenpetzaileak halaxe eskatzen duen egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, izenpetzaileak berriz jar dezake indarrean egiazttagiria; betiere, horretarako aurreikusitako baldintzetan.

Epe hori igaro, eta izenpetzaileak ez badu berriz indarrean jartzeko baiespenik ematen, egiazttagiria atzera botako dute.

Izenperen Sinadura Proba.

Izenperen egiazttagiri digitalarekin lotutako elementu guztiak instalatu ondoren, komenigarria izaten da sinadura egiaztatze proba bat egitea.

Horretarako, Izenperen web orrian sartu beharko dugu (www.izenpe.com), eta honako hauek egin beharko ditugu:

- "Egiazttagiri Digitalak" menua aukeratu
- "Sinadura Proba" menua aukeratu
- Aurrera egiteko Izenpek ematen dituen argibideei jarraitu

Izenperen identifikazio eta egiazttagiri digitaleko zerbitzuetan trebatzea.

"www.contratacion.info" eta www.euskadi.net helbide elektronikoen bitartez, Eusko Jaurilaritzak Izenpek bere erabiltzaileentzako eskaintzen duen trebakuntza jartzen du edonoren eskura:

- IZENPEren identifikazio eta egiazttagiri digitaleko zerbitzuen erabilerarako oinarrizko trebakuntza.
- IZENPEren egiazttagiri digitaleko zerbitzuak abian jartzea.

Trebakuntzarako materialak Izenperen helbidean bertan ere eskura daitezke: www.izenpe.com.

Enpresa Eskaintzaileentzako aurrez aurreko trebakuntza ikastaroek Izenperen zerbitzuei buruzko trebakuntza modulu bat izaten dute.

